



Zuzendaritza-talde agurgarria,

2016-17 ikasturtea hasi berri dugula zuengana gatoz, asmo hirukoitzarekin.

Batetik, zuzendaritza-talde hori agurtu eta egiten ari zareten lana eta jardun arduratsua **eskertu** nahi dizuegu, eskutitz honen bidez.

Bestetik, **irailaren 29an** Gasteizko CIFP Mendizabala LHI ikastetxean (Portal de Lasarte z/g), 12:30etik 15:00era burutuko dugun **batzarrerako deia** luzatzen dizuegu. Batzar honetan, besteak beste, Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum Osoa aurkeztuko dizuegu curriculuma gelara eramateko prestatu ditugun tresna guztiekin batera, *Batxilergoko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko* Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 2016ko irailaren 6an onartu berri duen **DEKRETUA** azalduko dizuegu, eta zeuen kezka nagusiak ere azaldu ahal izango dituzue.

Azkenik, iraileko deialdi, eskaintza edota agirien **berri emango** dizuegu jarraian:

1. *Batxilergoko curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzeko DEKRETUA irailaren 23an* emango da argitara EHAAn.
2. Hizkuntza proiektu hirueledun eta eleaniztunak dituzuen ikastetxe publikoek *Hizkuntzen trataera integratu eta integralari buruzko prestakuntza espezifikoa* parte hartzeko **irailaren 19ra** arte eman ahal duzue izena: <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/hizkuntzen-trataera-integratua-2016>.
3. “Desgaitasunetik inklusiora” jardunaldirako, **irailaren 22ra** arte eman daiteke izena: <https://sites.google.com/a/berritzegunenagusia.eus/desgaitasunetik-inklusiara-jardunaldia>.
4. *Hezkidetzako eta genero-indarkeriaren prebentzioa lantzeko 10 orduko formakuntza modulua* egiteko CDa Berritzeguneko aholkulariek banatuko dizuete **datozen egunetan**. Ildo beretik, *Ikasle transei edo genero portaera ez normatiboa dutenei eta haien familiei laguntzeko ikastetxeei zuzendutako protokoloa* http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r432459/eu/contenidos/informacion/dig2/eu_lgtb_fob/adjuntos/Protokolo_Trans_2016_e.pdf helbidean duzue. Halaber, *Emakumeen Mutilazio Genitalari buruzko protokoloa urrian* izango duzue eskuragarri.
5. *Ikastetxearen Elkarbizitza Plana egiteko Gida*, **irailaren 20rako** izango duzue.
6. *Hezkuntza Nortasun Agiria* IKASTEAtarian familia, irakasle eta ikasleen eskura jartzeko, ikasleen datuak eguneratzeko eskatuko zaizue **datozen egunetan**.

Informazio guztia baliagarri izango delakoan eta irailaren 29an elkar ikusiko dugulakoan, agurtzen zaituztet Gasteizen, 2016ko irailaren 14an.

ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO
Hezkuntza sailburuordea